



## Dantzari Txiki Eguna eta azoka asteburuan

**ALEGIA** ▶ Bederatzi herritako 200 dantzaritik gora ariko dira larunbatean, goiz osoan zehar

**IGANDEAN** ▶ Azaro Kulturalaren baitan, herritarrek prestatutako postuez beteriko azoka izango da ▶ 6

### TOLOSALDEA ETA LEITZALDEA ▶

Mingain  
urdinaren  
gaitzaren  
eragina ▶ 4

### VILLABONA ▶

Maila ona  
Armentiak  
Mahai Tenis  
Txapelketan ▶ 5

### ANATE ITURRALDE ▶ MERKATARITZA SARIA

«Denda txikiak berpizten  
ari dira; ziklo berri  
bati ekin diogu»

Aralar Kirolak dendak aurtengo  
Euskal Merkataritza Saria jaso du ▶ 2



### XANTI ETA GREGORIO HERNANDEZ ▶ 'MIHILUZE' SAIOKO LEHIAKIDEAK

«Etxean guztiok batera saioa  
ikusten oso ondo pasa dugu»

12 egun egin zituzten ETB1eko saioan, eta guztira 22.500  
euro eraman zituzten, oraindainoko kopururik handiena ▶ 3

ANATE ITURRALDE ▶ EUSKAL MERKATARITZA SARIA

# «Denda txikiak berpizten ari diren zikloari ekin berri diogu»

Aralar Kirolak dendak aurtengo Euskal Merkataritza Saria jaso berri du; duela 28 urte ireki zuten Anate Iturraldek eta Jose Luis Areizaga 'Txiki'-k

IÑIGO TERRADILLOS

Urteetan egindako lanak bere fruituak ematen ditu, eta hori badakite Anate Iturraldek (Leaburu-Txarama, 1955) eta Jose Luis Areizaga Txuri-k (Tolosa, 1948) Aralar Kirolak dendako jabeek. Orain, gainera, egin duten lanagatik esker ona ere jaso dute. Urteko Euskal Merkataritza Saria, hain zuzen. Orain bi aste izan zen sari banaketa ekitaldia, eta bertan Aralar Kirolak-eko jabeek Juan Jose Ibarretxe Euskal Autonomia Erkideko lehendakariaren eskutik jaso zuten saria. Dendako langileak, merkatarikarteko kideak eta Tolosako Udaleko ordezkariak ere izan ziren ekitaldian. Anate Iturraldek eman du ekitaldia beraren berri, eta dendaren sorreratik egoera nola aldatu den kontatu du.

## Espero al zenuten Euskal Merkataritza Saria jasotzea?

Ez genuen espero. Oso pozik, oso gustura gaude nire senarra eta ni. Euskal Autonomia Erkidego mailako saria da, ez da edozer gauza. Guretzat gehiegi ere bada.

## Zer esan nahi du sari horrek zuentzat?

Urte hauetan egindako lanaren errekonozimendu bat da guretzat. Gure ibilbide guztia saritzen du.

## Noiz hasi zen ibilbide hori?

28 urte egin behar ditu. Hain zuzen ere, 1979. urteko azaroaren 21ean ireki genuen denda, beraz, laster izango da urteurrena. Ordutik, filosofia berarekin egin dugu lan, hau da, beti aurrera begira ari gara.

## 1979. urtera joko dugu. Nolatan ireki zenuten denda?

Nire senarrak mendiarekiko



I. TERRADILLOS

zaletasun handia izan du beti, eta nik ere bai. Gure ilusio hori denda batean barneratuta ikusi nahi izan genuen, eta horrela sartu ginen abentura honetan.

## Hainbeste urte elkarrekin lanean, sekreturen bat izango duzue, ezta?

Bion afizioa bera zelako ireki genuen denda, baina gero jakin egin behar da harremana aurrera eramaten. Gure kasuan, bakoitzak badaki zein den bere lekua, eta horregatik ez dugu arazorik izan.

## Dena den, bikotean ez bada ere, zailtasunak izango zenuzuten urte hauetan guztietan?

Bai, noski. Batez ere, azken urteak izan dira gogorrenak. Izan ere, merkataritza-guneak ireki zituztenetik denda txikiak asko nabaritu dute hori. Jendeak denda handi horietan erosteko joera hartu du, eta horrek min handia egin die herrietako denda txikiak. Hala ere, gu indarrez gaude, eta aurrera egiten dugula esan behar. Lehen esan

bezala, filosofia bera dugu sorreratik, eta gogotsu egiten dugu lan. Hori da gure sekretua.

## Zein da egungo merkataritzaren egoera?

Zikloak daudela esan behar da. Une txarrak igaro ditugu, eta badirudi orain beste ziklo berri bati ekin diogula. Gauza da, orain Udaletik eta erakundeetatik laguntzak daudela denda txikiak sortzeko. Hori beharrezkoa da. Baina, gehiago egin behar da; esaterako, aparkalekuen kontua dago, hori asko hobetu behar da. Herria ere polita jarri beharra dago jendea erakartzeko. Gauza horiek Udaletik eraman behar dira, eta besteak guk egin behar ditugu ahalik eta egokien.

## Zer da Tolosan Igarondo merkatarien elkartetik gehien faltan botatzen duzuen. Zer eskatzen duzue?

Aparkalekuak. Hori da hutsune handiena gure herrian. Batez ere, kanpotik gurera eros-

ketak egitera datorren jendearentzat behar beharrezkoa da aparkaleku egokiak edukitzea. Hori eta herria oso txukuna izatea ere garrantzitsua da.

## Zuen kasuan kanpotik jendea joaten zaizue mendiko arropak-eta erostera.

Bai. Euskal Herritik nahiz Kantabria edo Errioxa bezalako Espainiako lekuetatik etortzen zaigu erosleak. Hori urteetako lanaren ondorioa da.

## Nola lortzen da ezagun egitea eta zure dendara erostea jendea urrutitik etortzea?

Lehendabizi zure lana ondo egiten. Behin hori eginda, ahoz-ahokoa da oso garrantzitsua, horrela lortzen da zure dendaren berri ematea. Eta horrela uste dut lortu dugula hain leku desberdinetatik gugana erosleak etortzea. Iraupen eskian gaude berezituak eta baita mendiko arropen ere, eta Edurne Pasaban bezalako mendizaleak ere etortzen dira gugana. Izena duen jendea etortzeak ere laguntzen du.

GIZARTEA ▶

## Txozna Batzordearen bilera, gaur

2008ko Inauteriak ate joka datoz baina bada denbora oraindik urtero Tolosako Txozna Batzordeak jartzen duen gunea prestatzeko. Aurtengoan, «jai herrikoi eta parte-hartzaileen alde» lan egin nahi duen talde eta tolosar guztiengana zuzentzen dira antolatzaileak elkarrekin gune hori prestatzeko. Horretarako, gaur, 19:00etan Tolosako Kultur etxean egingo duten bilerara azaldu beharko dute animatzen direnek.

KULTURA ▶

## Eskualdeko musikarien bila Euskadi Gaztean

[www.gaztea.com](http://www.gaztea.com) Euskadi Gaztearen web orria aurkezteko dute Bilbon hilaren 17an. Hau aitzakitzat hartuta, musika konzentrazio bat egin asmoz dabilta, eta ahalik eta musikari edo abeslari gehien bildu nahi dituzte abesti bat guztiak batera jo edo abesteko. Opus taldearen *Live is life* da abestuko duten abestia. Bilboko Alhondigian bilduko dira hilaren 17an, 17:00etan. Eskualdeko musikariei egiten diete deialdia antolatzaileek bertara joateko. Interesa dutenek [www.egaztea.com](http://www.egaztea.com) web orrian eman beharko dute izena.

GIZARTEA ▶

## Jai Batzordearen bilera gaur, 19:00etan

Jai Batzordeak bilera deitu du gaurko, 19:00etan, Tolosako Kultur Etxean. Inauteriak prestatzea izango da bilera honen helburua.

AISIA ▶

## Herri bazkarirako txartelak Gure Kaiolan salgai

Hilaren 18an, Gure Kaiola elkartearen eskutik XXI. Tolosako Babarrunaren Lehiaketa Gastronomikoa izango da, eta ondoren herri bazkaria. Bazkarirako txartelak lortzeko elkartean edo 607 67 27 09an, 19:30etik 21:00etara.

## TOLOSALDEKO HITZA.INFO

**Zeuk idatzi.** Eskualdeari buruzko albisteak sartzeko aukera eskaintzen dizu eskualdeko egunkariaren webguneak. Horretarako, **zeuk idatzi** atalean sartu behar duzu. Berria sartzean, zure datuak ere sartzera komeni da harremanetan jartzeko. ▶

XANTI ETA GREGORIO HERNANDEZ ▶ 'MIHILUZE' SAIOKO LEHIAKIDE OHIAK

# «Oso ongi pasa dugu etxean guztiok batera saioa ikusten»

Xanti eta Gregorio Hernandezek 12 egun egin zituzten 'Mihiluze'-n; orain arte saio honetan diru gehien eraman dutenak izan dira, 22.500 euro, hain zuzen ere

**ESTI EZEIZA**

Hainbat saiotan parte hartu dute dagoeneko Gregorio Hernandez (Belauntza, 1975) eta Xanti Hernandez (Belauntza, 1974) anaiek. Baina inon ez dute *Mihiluze*-n bezainbeste diru irabazi. ETB1eko saio ospetsuan 12 egun egin zituzten eskualdekoek, bi aldiz botea eraman zuten, eta denera, 22.500 euro poltsikoratu dituzte.

**Nondik bururatu zitzaizuen 'Mihiluze'-n aurkeztea?**

**Gregorio Hernandez.** Saioa ikusita. Hasiera batean arreba-rekin joatea pentsatzen nuen baina azken momentuan anaia animatu zen, eta biok joan ginen.

**Zer moduzko esperientzia izan da?**

**Xanti Hernandez.** Ona. Baina lehenagotik beste zenbait saiotan izanak ginen, eta bagenekien nolakoak izaten ziren grabaketak. Hau da, programa bat barrutik nolakoa den ezagutzen genuen.

**Beste hainbat saiotan parte hartu duzue, baina zertan izan da desberdina 'Mihiluze'-ko esperientzia?**

**G. H.** Orain arte eraman dugun diru kopururik handiena irabazi dugu hemen. Bestalde, jende jatorra ezagutu dugu eta ondo zaindu gaituzte.

**Diruarekin zerbaite berezia egiteko asmorik ba al duzue?**

**X. H.** Nik etxebizitza planean sartuko dut, ez baitzait Voith-Gorostidiko etxebizitzarik egokitu.

**G. H.** Ezta niri ere [biek barre giten dute].

**Orain ezagunak zarete! es-**



ESTI EZEIZA

**kualdean behintzat, zertan aldatu zaizue bizitza?**

**X. H.** Ni Madrilan izan naiz as-teburuan, eta han ere ezagutu naute.

**G. H.** Tolosaldean ez ezik Donostiatik nihoala aurrekoan, zu *Mihiluze*-koa zara esanaz etorri zitzaizkidan. Beste batzuek berriz izenez deitzen didate jada, eta ez dakit telebistatik edo bestela ezagutzen nauten. Horrez gain, jende asko etor-tzen zaigu gauzak komentatze-ra edo galdetzerara.

**Inguruko jendeak zer esaten dizue?**

**G. H.** Jende guztia gauzak eskatzen ari zaigu, afari batera, zerbait hartzera... gonbidatze-ko. Azkenean dirurik gabe geratuko gara.

**Zein probatan ibili zarete gus-tuetan?**

**X. H.** Agian, imihintziokan. Egia esan, etxean saioa ikustean, pentsatzen genuen ez ginela ezertan onak izango. Tribuaren berbetan esaterako. Bestetik, bertsoetan ere, hauek ez zaiz-

kit batera gustatzen eta uste genuen gaizki egingo genuela.

**Etxean prestatuta berezirik egin al zenuten?**

**G. H.** Komentatzen aritu ginen, imihintziokan zeinu bereziak egiteko, baina azkenean eguna iritsi zen eta ez genuen ezer ere egin. Dena den, nahiko ongi joan zitzaigun.

**Grabatzeko garaian urduril egoten al zineten?**

**X. H.** Bai, baina ez telebistan geundelako, baizik eta, dirua hor zegoela ikusten genuelako

eta eraman nahi genuelako. Grabatzen ari zarenean ahaztu egiten zara argiez eta kamarez, jolasten ari bazina bezala da.

**Amaitzean, penaturik joan al zineten?**

**X. H.** Bai, baina joateko mo-mentua ere bazen. Lanetik ezin baitituzu horrenbeste jai egun hartu.

**Oraindik saioa ikusten jarraitzen al duzue?**

**G. H.** Bai, atzo bertan ere ikusi genuen. Gainera, orain ager-tzen den jendea gurekin bate-ra egon zen.

**Aukera bazenute itzuliko al zinakete?**

**X. H.** Bai, esan genien gainera. Gabonetan-edo, saio bereziren bat egin behar bazuten abixa-tzeko eta joango ginela.

**Zein ekarpen egin dizue es-perientzia honen?**

**G. H.** Dirua. Izan ere, lehendik ere egonda geunden telebista saioetan eta ezagutzen genuen mundu hau. Gainera gehienak Miramonen, toki berean graba-tu genituen.

**Zer du 'Mihiluze'-k zuentzat, horrelako arrakasta izateko?**

**G. H.** Nire ustez, nahiko hez-itzailea, elkarrenergilea eta parte hartzeko erraza da.

**X. H.** Beste saio asko zailagoak izaten dira, hemen berriz, edo-zein pertsonak asma ditzake galderak.

**Zein ezaugarri izan behar dira 'Mihiluze'-n parte hartzeko?**


**X. H.** Imihintziok, probarako, agian, lotsa gutxi izatea, eta az-kenekorako, hau da, Zer da zer-erako kultura orokor pixka bat. Beste kasu batzuetan berriz, zortea.

**Eta zuen kasuan?**

**G. H.** Guk bietatik izan dugu. Azken proban ezagutzen genuen gaietako batzuk egokitu zitzaizkigun eta zortea izan ge-nuen.

**Zein momentu nahiago du-zue, grabatzekoa edo telebis-tan, zuen burua ikustekoa?**

**X. H.** Guk oso ongi pasa dugu gure burua ikustean. Geure buruaren lehendabiziko zale-ak gara [kar, kar, kar]. Oso ongi pasa dugu etxean, denok bate-ra saioa ikusten.



**Higiezin Agentzia**

Pablo Gorosabai 40  
1. solairua • 7. bulegoa  
20400 TOLOSA  
Tel./faxa: 943 65 55 87  
Sakelakoa: 669 368 994

<p><b>Alegia.</b> Eraikuntza berria, 13 etxebizitza 2 eta 3 logelakoak trastelekuarekin, 174.500 eurotik aurrera.</p> <p><b>Altzo.</b> Salgai eraberritzeko etxea 3 etxebizitzetarako, 10.000 m2ko lursailarekin.</p> <p><b>Altzo.</b> 75m2ko bi solairuko borda eta 10.000 m2ko lursaila.</p> <p><b>Anoeta.</b> Harrizko baserrian 90m2ko etxebizitza. Berritzeko.</p> <p><b>Betelu.</b> Hiru logelako etxebizitza. Egongela, sukaldea, bi bainugela,</p>	<p>terrazta eta altzariekin. Egoera ezin hobean.</p> <p><b>Ibarra.</b> Etxebizitza salgai, 3 logela, sukaldea, berogailua eta igogailuarekin.</p> <p><b>Ibarra.</b> Bi logelako etxebizitza. Eraberritua. 258.435 euro. Saltzea presazkoa.</p> <p><b>Irura.</b> Etxebizitza atikoan. Hiru logelakoa. Kanpoaldera, oso eguzkitsua, 237.500 euro.</p> <p><b>Tolosa.</b> Belatan, garaje ibixi salgai, 25 m2tik gora.</p>	<p><b>Tolosa.</b> Errementari kalean, 3. solairuan, hiru gelako etxebizitza. Eraberritua.</p> <p><b>Tolosa.</b> Aldaba auzoan, 3 solairuko etxe atxikia, lursailarekin. 297.000.</p> <p><b>Tolosa.</b> Errementari kalean, 62 m2ko etxebizitza 5. solairuan, 3 logelakoa. Garajea aukeran.</p> <p><b>Tolosa.</b> Berazubín, eraberrituriko etxebizitza, kanpoaldera, ikuspegi ederrak.</p> <p><b>Tolosa.</b> Larramendi kalean, pisu altua, igogailuarekin, egoera</p>
--	--	--

bikinean, garajea eta trastelekuak aukeran.

**Tolosa.** Bialaren ondoan, 50 m2ko eraberrituko etxebizitza. 50 metro karrutako garaje handia dauka.

**Tolosa.** Ugarran Goena, baserria eraberritzeko. 240 m2ko solairua.

**Tolosa.** Nafarroa etorbidean etxebizitza salgai. Bigarren solairuan, 90 m2 erabilgarri.

**Tolosaldea.** Baserria 10.000 m2ko lursailarekin, eraberritzeko dago.

NEKAZARITZA ▶

# Ondorio ekonomikoak izan ditzake mingain urdinaren gaitzak

Ganadua mugitzearen debekuak abeltzainei kostua eragin dakioke; informazio ofizialik ez dutela zehazten dute

IMANOL GARCIA

Mingain urdinaren gaitza dela eta Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Nafarroko Gobernuak abereak mugitzeko debekua ezarri dute Gipuzkoan eta Nafarroan. Adituek azaldu duteenez, gaitzak ez dio eragiten gizakiari. Baserritarrei, baina, gaitzaren ondorioz hartzen diren neurriek kostuak ekar dakizkieke.

Abeltzainek ez dute zuzenean debekuaren albisterik jaso, baina bai beste modu batera. Esaterako, Bernardo Labaka abeltzain zizurkildarrak GIZE elkartetik jaso du berria. Hain zuzen, gizentzera eramaten dituzten txekorrek ez zituztela jasoko azaldu die. Horrek «lan gehiago» eta beraz «kostu handiagoa» suposatzen dio Labakari. «Txekorrek bertan eduku beharko ditugu eta ez gaude horretarako prestatuta». Ez dakite noiz arte iraungo duen neurriak eta horrek ere ezinezona sortzen du.

Labakak ez du behin ere



Artalde bat Bedaio inguruan. IÑIGO TERRADILLOS

mingain urdinaren gaitza ezagutu. Komunikabideen bidez jakin du ez duela pertsonengan eraginik. Hala ere, uste du kontsumoa jaitsi daitekeela, erosleen mesfidantzarengatik. Bestalde, Foru Aldunditik esan dute txertoak jarriko dizkietela abereei, baina horren berri ere komunikabideetatik jaso dute baserritarrek.

Jon Ander Goñi artzain amezketarrak ez du gaitzaren trazarik somatu bere ardietan.

«Ez da behin ere horrelakorik hemen tokatu», dio. Ganadua mugitzeko debekuaren inguruan, ardiak larreetara atera beharra dutela dio. «Ukuilu barruan ezin ditugu izan pensuak dauden prezioan», zehazten du. Mendian dituzten ardiak aste honetan jaitsi nahi dituzte. «Etixeraino jaitsi behar dituzte. Hori galerazten badute, ardiak mendian hilko dira. Elurra egiten badu ea zer gertatzen den. Mendian ezin ditugu

utzi». Artzaintza «egoera txarrean» dagoela dio eta gai honek guztiak egoera txartu egin dezakeela gaineratzen du Goñik.

Bestalde, arkumeak oraintxe ari dira jaiotzen. Handizkari bati saltzen dizkio, artzainen elkarte baten bitartez. «Oraingoz ez digute behintzat ezer esan arkumeak eramatearen inguruan», azaltzen du.

## Sindikatuaren iritzia

ENBA sindikatuko Mikel Arteagak «lasaitasuna eta tentuz jokatzea» eskatu du. «Neurri izugarri gogorak eta azkarrak hartu beharrik ez dagoela», dio. Hori bai, albaitariak eta beste zerbitzuek azkar mugitu behar dutela dio, «infekzio guztiak analizatu eta erantzunak emateko». Oso gogorra iruditzen zaio ENBari ganadua guztia geldituta izateko neurria. «Azokak eta idi-demak albaitariaren baimenarekin eta txertoa eman eta gero, lasai asko egin daitezkeela uste dugu», zehazten du Arteagak.

Bere aldetik, EHNEK EAEko eta Nafarroako gobernuei gaia aztertuko duen analisi mahai bat «berehala eratzeko» eskatu die. Mahaian EHNE egotea beharrezkoa dela diote, «abeltzainak behar bezala informatuak izan daitezten eta sektoretik proposamenak aurkezteko». Bestalde, ganadua mugimenduen kontrolak «oso ondo analizatu behar direla» diote. «Pentsuen garestitzearekin sufritzen ari den sektorearentzat eragin larria izan dezake».

ANOETA ▶

## AHTri buruzko DVDa ikusgai, gaur, Kuku elkartean

ERREDAKZIOA

AHTrekin lotutako herri galdeketa eta prestatu duten prozesurako, kaleratu duten DVD emanaldiak izango dituzte: gaur, Kuku elkartean 19:00etan; bihar udaletxean; etzi 18:00etan Gaztetxean eta 22:30ean Itzuli Tabernan.

Emanaldiak irekiak dira, baina horiez gain, herriko elkarte ezberdinetan DVDa erakutsiko dute. DVD emanaldiak egiteaz gain, salgai ere jarriko dute DVDa herriko denda eta tabernetan.

DVDan AHTren ondorio orokorreaz, Anoetan egingo litzuzkeen kalteaz eta abenduaren 2ko herri-galdeketa hitz egiten da. Auzi honen inguruan webgune bat egin dute eta bertan aurkitu ahalgo da honen guztiaren inguruko informazioa: [www.mundur.net/anoetanahtez](http://www.mundur.net/anoetanahtez).

ANOETA ▶

## Erregai gutxiago kontsumitzeko ikastaroa

Erregai gutxiago kontsumituz eta gutxiago kutsatuz gidatzeko ikastaroa antolatuta du Ernioaldea Udaltalde 21ek Anoetan. Ikastaroa doan da, 4 orduko iraupeneko, teoriko-praktikoa, eta bi egunetan egiteko aukera izango da, hilaren 26an (astelehena, arratsaldean) edo abenduaren 15ean (larunbata, goizean). Izen eman nahi dutenek 619 770 408 telefono zenbakira dei dezakete hilaren 19a baino lehen.

ANOETA ▶

## Begiei buruzko hitzaldia, bihar, Alkartasunan

Anoetako jubilatuen Alkartasuna biltokian bihar begiei buruzko hitzaldia izango da. 18:30ean da Kutxak antolatutako hitzaldia, Ana Atienzak emandako *Begiak, bizitzaren leihoak* hitzaldia. Begietako gaixotasunak, edo ebakuntzen ondorengo zain-zaintza ariko da Atienza, beste-aren artean.

XABIER PELLEJERO ▶ ALBAITARIA

## «Baserritarrek ez dute egin behar ezer apartekorik»

Xabier Pellejerok albaitari lanak egiten ditu Villabona-Aiztondo bailaran.

**Mingain urdinaren gaitza ezaguna da gure artean?**

Nik dakidala inoiz ez da izan hemen.

**Nola eragiten die animaliei?**

Ardiei eragiten die gehien gaitzak. Larri afektatzen dienei, aholdean, mingainan, hestegorria eta beste leku batzuetan zauriak eragiten dizkiete eta bukaera aldera kolore more antzekoa gelditzen zaie. Larri eragindakoak hil egiten dira.

**Horri aurre egiterik badago?**

Birusa da eta, beraz, behin gaitza larri azaltzen denean tratamendu egokirik ez dago. Prebentzio bezala txertoa eman daiteke. Aurretik analisiak egitea, positiboak bilatzea eta horiek kendu behar dira.

**Gizakietan eraginik du?**

Ardietan eta behietan bakarrik du eragina. Gizakiarentzat ez du eraginik. Animaliak elkarren artean egonik ere ez da transmititzen. Odoletik odolera kutxatzen da, eltxo baten bitartez.

**Albaitariei zer dagokizue egitea?**

Nire kasuan oraingoz ezer ez. Eta nire inguruko baserritarrei ere esango nieke ez dutela egin behar ezer apartekorik. Ez dugu urduri jarri behar eta gauza arraroak egiten hasi. Oiartzun eta Errenteria inguruan neurri berezi batzuk hartu dira eta laginketa egiten ari dira, ikusteko zenbateraino zabaldu den. Ematen du izan diren kasuak bakan batzuk izan direla. Gainera, baikortasun batekin begiratu behar diogu,

negu sarreran gaudelako eta eltxoak nahiko motelduta dardelako. Guk lana txukun egiten badugu eta kutsatutako animaliak kontrolatzen baditugu, hau di-da batean bukatu daiteke.

**Abereak mugitzeko debekua ezarri du Foru Aldundiak.**

Ez dago ziurtasunik gaitza noraino zabaldua dagoen zehazteko. Begiekin ikusi direnak eta gero analisiekin konfirmatu direnak inguru horietan azaldu direnak dira. Momentuan ez da komeni abereak normalean ibiltzen diren lekutik inora mugitzea. Bertako hiltzegietara eraman daitezke. Ezin dena da bizirik dagoen ganadurik kanpora eraman eta kanpokoak hona ekarri.

**Arkumeak ezin dira eraman azoketara.**

Momentuan ez. Arkumeen denboraldia hasteko dago. Ez dakigu zer iraupen izango duen debekuak. Egiten diren laginketaren erantzunak denbora gutxian jakingo dira. Espero dugu begiek ikusi dutena baino asko gehiago ez izatea.

**Orain artzain batzuk ardiak menditik baserrira jaisten ari dira.**

Askok mugimendu hori bertatik bertara egiten dute eta askotan oinez. Beste kontua da Aralarretik ardiak esaterako Irunera eraman behar izatea. Hor bai sortzen direla arazoak. Itxaron beharko da gauzak argitu bitartean eta sufritu beharko ditugu zenbait ondorio. Bestalde, larre ganadua ukuilura sartzeko garaia da, eta bete beharrekoa da ukuiluak desinfektatzea. ◀



VILLABONA ▶ KIROLA

# Armentia zortzigarren mahai tenisean

Antolakuntza eta parte-hartze aldetik «oso arrakastatsua» izan da txapelketa



Adin guztietako 50 jokalarik hartu dute parte. TXEMA ARMENTIA

**HARRIET BELLOSO**

Pasa den asteburuan Espainia-ko Mahai Teniseko Txapelketa jokatu dute Villabonako Olaederra kiroldegian. Espainiako Top-a jokatzeko baliagarria da eta bi mailatan zegoen banatuta: gizonezko senior eta beteranoak, eta emakumezko absolutuak.

Antolakuntza aldetik «izugarriko arrakasta» lortu du Villabonan ikusi ahal izan den txapelketa berezi honek.


Guztira 50 jokalarik izan dira parte hartu dutenak eta bakoi-tzak 12 norgehiagoka jokatu ditu. Seiko multzoetan banandu eta gero larunbat goizean hasi zen txapelketa. Lehenengo hiruak hurrengo txandarako sailkatzen ziren. Bertan lau-ko multzo berriak osatu ziren eta denak elkarren kontra jokatu zuten. Azkenean lehenengo hiru sailkatuak azken txandara pasa ziren.

Txema Armentiak, edizio honetan parte hartu duen etxeko jokalarik bakarrak, beteranoen txapelketan (40 urte gorakozentzat) jokatu zuen eta azken rondara iritsi zen, eta igande goizean lehen zortzi postuetan sartzeko jokatu zuen. Goizeko lehen partida irabaztea beharrezkoa zen eta izerdirik bota gabe lortu zuen garaipena, hori bai, zorte askorekin. Bere

arerioa larunbateko jardunaldian lesionatu egin zen eta ez zen azaldu igandeko hitzordura. Hurrengo partidetan gogor borrokatu zuen baina azkenean zortzigarren postuan amaitu zuen txapelketa. Emaitza honen Espainiako top-a jokatzeko aukera ematen dio, eta bertan goi mailako jokalarien aurka ariko da.

Beterano mailan Luis Echeto donostiarrak izan zen garailea finalean M. Mailo menperatu ondoren. Seniorretan Aitor Mitxelena txapelketaren zehar izugarriko maila erakutsi zuen eta garaipena lortu zuen antolatzaileak harrিতuta utziz. Emakumeen kategorian aldiz Valladolidetik etorritako Lis Pardok eta Nuria Santosek jokatu zuten finala, lehenengoak garaipena lortuz norgehiagoka on bat egin eta gero.

Datorren jardunaldian hemengo hiru taldeek etxean jokatuko dituzte beraien partidak. Bigarren maila nazionalen Usabal Mt-Tolosak Natacion Pamplona taldea jasoko du larunbatean 16:30ean. Egun berdinean, Tolosan ere, CD Olaederra Ak Gasteizko CD Zuzenak taldearen aurka arituko da, eta azkenik, CD Olaederra B taldeak igande goizean jokatuko du Villabonako Olaederran CTM Abadiñoren aurka.



3x6 Modulua

Zuretzat da, 3 lagunik onentzat eta 600 ezaguntzat da.

Aldatu Euskaltelera, eta deitu 3 telefono-zenbakitarako minutuko 6 zentimoan, gainerako deietan ezustekorik izan gabe.

Aukeratzin dituzun hiru zenbakiekin	40 milioi finke eta mugikorrekin
<b>6zent.</b> min.	<b>18zent.</b> min.



Eta, gainera, mp3-a eta irratia duen 5200 Nokia hau 0€-ren truke.

Deitu **1717** telefono-zenbakira edo ekarri zure faktura, eta egiaztatzen zuretzat aurrezten duzun.



3x6 modulua: estatuko deietarako soilik. Alta-kuota eta hileko kuota, 6 €; deietaren ezarzte-kostua, 15 zent; eta hautatutako zenbakia aldatzeko kostu gehigarria, 3 €; 18 zent/min-ko tarifa estatuko gainerako deietarako, Unika +51 lotuta, eta hileko gutxieneko kontsumoa, 15 €. Nokia 5200ren PSPa, eramangarritasuneko bezeroentzat edo Euskaltelen Zuzeneko Sarbidearen edo Hautatutakaren bezeroentzat. Eskaintza honek 2007/11/30era arte balio du, eta 1.500 aleko muga du. Terminal hori Unika 1-seko prezio-olantari lotuta dago, eta 18 hilabete irauteko konpromisoa eskatzen du. Inkarrazpen honetan adierazten diren prezioei daozkien zeharkako zeroak aplikatu.

## ALDABA ▶ EHIZA

## Albizturko eta Aldabako ehiztariek 173 kiloko basurde arra ehizatu dute

Marea mendian harrapatu zuten eta azken urteetako handiena da

## N. URBIZU

Aldabako eta Albizturko ehiztariek joan den ostegunean Marea mendian basurde ikaragarri bat ehizatu zuten. Baskula gainean jarri eta 173 kilo pitatu zituen.

Duela bi urte mendi hartan basurde handi baten aztarnak ikusi zituzten, eta Azkoitia 160 kiloko basurde bat hil zuten. Orduan, Aldaban zebilen basurdea izango zela pentsatu zuten, baina hau lehengo astean hil zutenean zalantza izan

dute. Basurde ar oso handia da, eta ehiztariek ez dute halaiko piezarik gogoratzen, ezta helduenek ere.

Basurde honekin txorixoak egitea pentsatu dute, eta ehiztarien artean banatuko dute guztia.



173 kiloko basurdea ehizatu zuen ehiztari taldea, joan den ostegunean, zakurrekin. HITZA

## ALEGIA ▶ KULTURA

## Dantzari Txiki Egunean eskolan 200 dantzaritik gora elkartuko dira

Igandean herritarrek prestatutako postuez betetako azoka izango da, barazkiekin eta animaliekin: horrez gain, postu bereziagoak ere izango dira, gozoeekin eta sagardoarekin, goiz osoan zehar

## NEREA URBIZU

Dantzari Txiki Eguna Alegian larunbateko goizean zehar ospatuko dute. Euskal Herriko dantzak eskainiko dituzte, Alegiko Azaro Kulturalaren baitan. Bertan parte hartuko duten taldeak, Alegikoez gain, hauek izango dira: Altzo, Ikaztegieta, Ibarra, Tolosa, Anoeta, Irura, Villabona eta Usurbil. Guztira 200-225 dantzari inguru bilduko dira.

Marta Iraola Alegiko dantza taldearekin aritzen denetako bat da eta berak argitu bezala, «Larraitz auzoan zehar ibiliko dira dantzan, aurten San Juan kalea obretan baitago». Beraz, saioak Larraitz auzoan egingo dituzte bi taldetan banatuta, eta ondoren plazan denon artean *Agurra*, dantza talde bakoitzak dantza bana, eta bukatzeko guztiek batera *Fandango Arin-Arina* eskainiko dute.



Alegiko dantzariak aurtengo Karmenetan dantzatzen. P. RENOBALDES

Eguraldi txarra egingo balu pilotalekuan egingo lukete guztia.

Izenik gabeko dantza taldea da Alegiko dantzariena, nahiz eta 10 urte inguru aurten bete. Urtean zehar Alegiko Udalak, Becker-Ederfil kooperatibak

eta Iturrioz iturgintzak ematen dizkiete laguntzak. Bestela, Dantzari Txiki Egunerako bereziki Eroski eta Tolosaldeko Autobus enpresak laguntza eman diete: «Eroskik hamaiketako egiteko, eta autobus enpresak herrietako dantzariak Alegiara hurbiltzeko prezio bereziki egin dizkigu».

## EGITARAUA ▶

Dantzari Txiki Egunean zehar herri askotako dantzariak ariko dira Alegian.

## DANTZARI TXIKI EGUNA

**10:00.** Dantza talde guztiak eskola txikitik elkartuko dira.

**10:30.** Kalejirari hasiera emango diote. Larraitz auzotik barrena dantza desberdinak dantzatzeko dituzte.

**12:00.** Kalera bidean doazela, eskola txikietara bueltatuko dira hamaiketako egitera.

**12:30.** Herriko plazan talde guztien artean emanaldia izango da.

izango da. Kasu honetan, Zazpi Astoren Gaietan bertso eskola aritu da hau antolatzen. Guztira 35 bat lagun izango dira aforan.

## Herritarren azoka igandean

Azaro Kulturalaren baitan igandean ere egun berezia biziko dute alegiarrek, herriko plazan barazki eta animalia azoka izango baita. 11:00etatik aurrera izango da. Barazkiak eta animaliak izango dira plazan. Postu guztiak alegiarrenak dira. Baten bat gazta nola egiten den erakusten ariko da. Animalien artean, zaldiak, poney-ak ibilaldietarako eta oiloak nahiz untxiak izango dira

ikusgai. «Artalde bat ekartzekotan ere izan ginen baina debekua kontuarekin azkenean ez da izango», argitu du Maider Jauregi kultur zinegotziak. Eguerdira arte izango da azoka bertan.

Baina, animaliez eta barazkiez gain, sagardo postu bat ere izango da, eta beste batean bizkotxo, pastak eta marmeladak. Guztira, 20 bat postu ezberdin izango dira, eta denak herritarrek jarritakoak.

Postuak jarri behar dituztenak 10:00etarako egon behar dira plazan, dena prestatzen hasteko. Hala eman du jakitera Udalak. Plazan izango da azoka, baita eguraldi txarra eginez gero ere: «Frontoian egitea pentsatu genuen baina ez dauka zentzu handirik, besteen artean, jendea espreski bertara hau ikustera joan beharko zelako».

Bestalde, Aralar institutukoek ere postu bat jarriko dute igandean, pintxoetz beteta. Berraien bidaiarako dirua aterata nahi dute honen bidez.

## Haur antzerkia 18:30ean

Etzi Alegiko kultur etxean 1, 2, 3 *Inaxito!* haur antzerkia izango da. Hasiera batean egitarauan 17:30ean jartzen du, baina 18:30ean izango da azkenean. Bertso-antzerki bizi eta atsegina honek haurren irudimena landu nahi du, sormena, hain zuzen. 5 eta 12 urte bitartekoentzat da aproposa.

### Enpresa bakoitzaren beharretara egokitutako zerbitzu profesionala eskaintzen du Jarduna.

Zerbitzu guztiak **euskaraz** betetzea bermatzen dizugu



Zure enpresarentzat administrazio zerbitzu profesionala eta euskalduna nahi baduzu, jarri harremanetan gurekin

- KONTABILITATEA
- ZERGAK
- NOMINAK
- KOBRANTZAK

# Jarduna

administrazio zerbitzuak

Martin Ugalde Kultur Parkea  
ANDOAIN  
943-30 40 30  
administrazioa@jarduna.net



IBARRA ▶ MENDIA

# Bizikletaz Bardeak ezagutzeko aukera igande honetan

Herriko bi taldek elkarlanean egun pasa antolatu dute 'Euskal Herria ezagutzuz, Lurraldetasuna sustatuz' lelopean



Haitzetan Raju eta Bai Euskal Herriari taldeek lehen irteera Lapurdiko kostaldera egin zuten irailean. HITZA

ASIER IMAZ

Ibarrako Haitzetan Raju eta Bai Euskal Herriari taldeek bizikletaz egun pasa antolatu dute Bardeetan (Nafarroa), hilaren 11rako, iganderako. 08:00etan herriko plazan geratu dira irteera egiteko asmoz, «bizikleta guztiak kamioneta batean emango ditugu eta gu berriz autoetan joango gara».

Antolatzaileek adin guztiatako jendea bildu nahi dute igandean, «ibilbidea aurreikusia dugun arren, azkenean jendeak erabakiko du nondik nora joan edo non gelditu». Herrian 08:00etan geratu ondoren, Nafarroaruntz abiatuko dira. 10:30ean iristea pentsatzen dute, 11:00etan bizikletak prest jarri eta ibilaldiari ekite-

ko. Yugoko baselizatik abiatu ondoren, bidean bazkaltzeko geldialdia egingo dute, «janaria norberak eraman beharko du». Bazkaldu ondoren, Lurrezko Gaztelura heltzea espero dute antolatzaileek, «noiz iritsiko garen ziur ez dakigu, jendeak esango baitu noiz iritsi egunean bertan. 4 orduko ibilbide lasaia daukagu buruan baina egunean bertan jakingo dira gauza horiek».

Itzulera berriz, 19:00ak edo 20:00ak aldera izango dela jakinarazi dute.

## Euskal Herrian zehar

Ibarrako Bai Euskal Herriari eta Haitzetan Rajuk elkarlanean antolatutako mendi irteeren egitaraua aurkeztu zuten iraile-

an. Guztira zazpi irteera aurkeztu zituzten *Euskal Herria ezagutzuz, Lurraldetasuna sustatuz* lelopean. «Euskal Herriko zazpi lurraldeak ezagutu eta bertako jendearekin harremanetan jartzea da helburua, herri giroa bultzatzeaz gain. Horretarako, lurralde bakoitzera irteera bat egingo da hilabete ezberdinetan».

Lapurdira eta Zuberoara iraila eta urrian joan ziren. Hirugarren irteera, igande honetako, Nafarroako Bardeetara egingo dute eta ondoren Bizkaiaren txanda izango da, otsailaren 10ean. Martxoan Araba, apirilean Behe Nafarroa eta maiatzaren 25ean Gipuzkoan barrena ibiliko dira bi taldeetako kideez gain, irteerentara gerturatzen diren guztiak.

ZILARREZKO JAURTIKETA ▶ JON ALTUNA

## Gaizki hasten dena...



**D**enboraldiko asteburu txarrena izan da aste honetako. Ez dakigu zergatik baina dena gaizki irten zitzaigun. Aurten jokatu behar genuen partida politenetako bat zen, baina ez genuen eman beharreko maila eman.

Alavesen aurkako euskal derbian, ezbairik gabe onena bertan bizitako giroa izan zen; 7.000 pertsona inguru bildu ziren bertan. Harmailetan euskal giroa nabaria zen, gainera Gasteizko taldeak azken urteetan Pitermanekin pasatuko urte zailen ondoren, jarraitzaileak gogotsu eta itxaropentsu daude eta taldeari asko ari dira laguntzen. Larunbat arratsaldean izan zen partida, ordu berean *Goizuetako axtiak* erakustaldi handia eman zuen *Iberoko basapiztaren* aurrean. Aimarzalea

izaki, gutxienez berri on bat izan genuen larunbatean.

Esan bezala, partida gaizki joan zen guretzat. Mementu batean ere ez ginen partidaren egon, gu baino hobek izan ziren eta merezita irabazi zuten. Haseratik ikusi zen ez geundela ondo eta esaten den bezala gaizki hasten dena gaizki amaitzen da. Berehala sartu zuten gola, Mendizorrotzan arratsaldeko mementu txarrena orduan bizi izan zelarik. Eztanda Norteko jarraitzaileak gola ospatzen ari zirela harmailetako hesia jausi eta zulo batera erori ziren. Hamabi lagun zaurituak suertatu ziren, baina zorionez ez zen ezbehar larririk izan. Hori bai ez zen izualdi makala izan!

Gauzak gaizki irten ziren, baina oraindik garaiz gaude eta egindako akatsetatik ikasi behar dugu gerora errepika ez daitezen. Partida txar batek ezin du orain arte generaman bide ona oztopatu. Honelako momentuetan ikusten baita taldeak benetan nolakoak diren.

IBARRA ▶ KULTURA

## Babarrun jatea eta txerri zatiketa igandean

A. IMAZ

Urtero bezala, Babarrun jatea egingo dute Ibarran hilaren 11n, igandean, 14:30ean herriko plazan. Bazkarian eta festan parte hartzera gonbidatu dituzte herritar guztiak Hauspoa elkarteak kideek. Txartelak Zubiaurre, Atari eta Sendi-Ekintza tabernetan daude salgai dagoeneko.

Aurtengoan, bi harakinek hildako txerria nola zaitzen den erakutsiko dute eguer-



Babarrun jatea plazan. HITZA

dian plazan bertan. Horretaz gain, urteroko zozketa ere egingo dute.



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

## HILBERRIAK - URTEURRENAK - ESKERTZAK

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZAK GIPUZKOAN 120.000 IRAKURLE

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen dira  
tolosaldean@tolosaldekohitza.info

Tel.: 943 65 56 95



**AGENDA ▶**

**DEIALDIAK**

**Alegia.** Txintxarri Eguna azaroaren 18an izango da. Bazkaria Txintxarri jatebexan izango da. Bazkarirako txartelak 35 eurotan salgai Kafe Letamendian, jubilatuen tabernan eta Landa Enea kafetegian.

**Amasa.** Amasako Kultur Etxetik txupinazoa, Martina sorginaren iritsiera eta pintxo dastaketa.

**Ibarra.** Bizi Nahi jubilatutako elkarrekin Amurriora irteera antolatuta du hilaren 17rako, Gasteiz eta Zumaia ere bisitatuz. Izen-ematea, elkartean 26 eurotan. (28 ez bazkideek).

**Tolosa.** Mendia eta naturaz argazki lehiaketa antolatuta du Oargi mendi elkarrekin. Argazkiak Karlis argazki dendan entregatu behar dira hilaren 15erako.

**Tolosa.** Zezen-plazako bizilagunen afaria izango da azaroaren 10ean. Izen-ematea, ohiko lekuan.

**Ugarte.** Sardina-jatea Ugarten izango da iluntze partean. Txartelak salgai daude herriko tabernetan. 10 euroren truke. Txartelak azaroaren 4ra arte izango dira salgai. Beraz, erabakia hartua baduzue, ez egon zain, eta segi txartela erostera.

**Zizurkil.** Asteazkenero bezala AHTri buruz hitz egiteko aukera izango da Abulondon 19:30ean. Bilerak Aiztondo bailarako ikusita dago.

**ERAKUSKETA**

**Berastegi.** Gaztainondo Elkarteak, onddoen erakusketarako Lizarrusti Parkeko kideen eskutik 16:30etik 20:00etara. larunbata eta igandean 11:30etik 13:00etara eta 16:30etik 20:00etara. eskolakoek.

**Tolosa.** Ipuinartean II Ereite elkarte multikulturalaren erakusketarako Aranburu Jauregian.

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Gaur**  
 Tolosa. Bronte, C. Korreo kalea, 10. 943 676013.  
 Leitza. Plaza, M.T. Elbarren, 36. 112.

▶ HITZak ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



**'Sin reservas' filma Leidor aretoan**

**TOLOSA ▶** Nazioarteko Abesbatzen Lehiaketa dela-eta zinemak zubian izan duen geldialdiaren ostean, Leidor aretoa bueltatuko da, zine-forumaren eta asteburuko egitarauaren eskutik. Hala, bihar Nuri Bilge Ceyla zuzendariaren Los climas filma izango da ikusgai, 19:15ean eta 21:45etik aurrera. Asteburuan ere izango da zer ikusia Leidorren, izan ere *Sin Reservas* filma emango dute — irudian filmaren une bat—. Hain zuzen, ostiralean 22:30ean, igandean 19:30ean eta astelehenean —ikuslearen eguna— 20:30ean. HITZA

**AGURRAK ▶**



**URTE ASKOAN**  
 Manex Tejeria Larrarte.  
 (Zizurkil). 2 urte. Axier, June eta gurasoen partetik.



**URTE ASKOAN**  
 Uxue Aizpurua De Paz  
 (Asteasu). Muxu handi bat familiaren partetik.

**Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker.**

**hitza**  
 agurren tartea

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

**hitza**ren eskutik

**Pirritx eta Porrotx**

**PANPINAK**

eta **DVDa etxeko txikiek jolasteko**

**"Mari Motots"**  
 ikuskizunaren DVDa  
**18€**

**Pirritx eta Porrotx**  
 (motxila opari)  
**40€**

**Pirritx**  
 (poltza opari)  
**20€**

**Porrotx**  
 (poltza opari)  
**20€**

Egin eskaria amaitu baino lehen  
**902-82 02 01**

**hitza**